

# BOTERE KORPORATIBOA PANDEMIA GARAIAN

Gida Didaktikoa • II. Moduloa

“MEGAPROIEKTUAK ETA BESTE JARDUNBIDE  
KORPORATIBO BATZUK”





---

**Itzulpena:** Belaxe, Koop. E.

**Diseinua, maketazioa eta ilustrazioak:** Iñaki Landa

**Lizentzia:** Argitalpen honek Creative Commons lizentzia du: Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0 Espainia.

Ikusi lizentziaren kopia hemen: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/deed.eu>

# AURKIBIDEA

|                                                                            |           |
|----------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1. Moduluaren helburuak</b>                                             | <b>4</b>  |
| <b>2. Eduki nagusiak</b>                                                   | <b>6</b>  |
| a. Megaproiektua, lurraldean indarrez sartzeko tresna korporatiboa         | 6         |
| b. Megaproiektuen analisi ekofeminista                                     | 10        |
| c. Megaproiektuei aurre egiteko gakoetako batzuk                           | 13        |
| d. Kapitala gure bizitzen aurka: ofentsiba korporatiboaren hainbat agerpen | 17        |
| <b>3. Eztabaidaren ardatzak</b>                                            | <b>22</b> |
| <b>4. Materialak</b>                                                       | <b>23</b> |

## 1. MODULUAREN HELBURUAK

Aurreko moduluan, botere korporatiboaren agendak dituen ezaugarri nagusiak aztertu ditugu; oraingo honetan, berriz, hori praktikan nola jartzen den ikusiko dugu. Beraz, ikusiko dugu enpresa handiek zer tresna erabiltzen dituzten, batik bat, une kritiko honetan irabazi gehiago lortzeko, eta beraien jarduketek zer eragin dituzten kapitala zein bizitzaren erreprodukziorako estrategiko diren arloetan: lurraldeetan eta ingurumenean, lanean, datuetan, finantzetan, demokrazian eta kulturaren.

Hasteko, gaur egun botere korporatiboaren agerpen nagusiak diren *megaproiektuak* ikertuko ditugu. Merkatu globalak helburu dituzten lurraldeak desjabetu eta husteko esperientzia horiek planeta osoan hedatu dira, hainbat formula eta diskurtso erabiliz, sektore ekonomiko ugarritan. Dena den, labur azaltzen saiatuko gara, batetik, zein diren protagonistak (megaproiektuaren kate globalean jarduten dutenak, finantzaketatik hasi eta ezarpenera bitartean) eta, bestetik, zer patroi erabili ohi duten erasoan aurrera egiteko. Azkenik, horien tresna nagusiak, inpaktuak eta interakzioak ere jorratuko ditugu hainbat ikuspegitik

(ekofeministatik, batik bat). Amaitzeko, eztabaida sortuko dugu megaproiektuei aurre egiteko zenbait gakoren gainean.

Edonola ere, lehen ere esan dugunez, ezin dugu enpresa handien agenda megaproiektuetara mugatu. Tresna ugari dituzte gure bizitzetan eragiteko: klimaldaketan eta ondasun naturalen balio-galeran duten funtsezko eginkizuna; datuen eta adimen artifizialaren sektore estrategikoa mugarik gabe bereganatzea, ekonomia eta gizartearen kontrola helburutzat harturik; sindikatuen aurkako eta lana prekarizatzearen aldeko erasoak; finantzen alde apustu egitea (kapitala ugaltzeko baliabide nagusitzat harturik) eta, ondorioz, ekonomia epe laburragokoa eta zaugarriagoa bihurtzea eta herritarrei autonomia galaraztea; eragin politikoa (globaletik hasi eta tokikoraino) ingurune lehiakorak sustatuz (lanaren prekarizazioa, murrizketa fiskalak, laguntza publikoak, berrikuntza-zentroak...), eta gizarte-erantzukizun korporatiboko iragarkiak eta estrategiak kolore berdez, lilaz eta ostadar-kolorez janztea.

Zentzu horretan, botere korporatiboak *erauzketa-logika* erabiltzen du hainbat esparrutan, eta merkantilizazio-, menderakuntza- (esplotazioa barne) eta kanporatze-dinamika anitzetan murgiltzen da. Landa-eremua eta ondasun naturalen erauzketa gainditzen dituzten beste eremu horietan jarriko dugu arreta azken atalean, eta horrelaxe osatuko dugu enpresa transnazionalen jarduketa-esparrua.

Premisa horietatik abiatuz, hauek dira **modulu honen helburuak:**

1. Megaproiektuen fenomenoaren protagonistak, funtzionamenduereduak, inpaktu nagusiak eta horiei aurre egiteko gakoak ikertzea.
2. Agenda korporatiboaren jarduketan eta inpaktuen esparru osoa identifikatu eta azaltetik aztertzea, batez ere zenbait arlotan —lurraldeak eta natura, lana, datuak, finantzak eta diskurtso hegemonikoa—, dagoeneko azaldu dugun krisi ekonomiko eta ekologikoaren, eta autoritarismo eta neofaxismo gero eta handiagoaren testuinguruan.

## 2. EDUKI NAGUSIAK

### a. Megaproiektua, lurraldean indarrez sartzeko tresna korporatiboa

Lurraldeak eremu estrategikoak dira kapitalaren eta bizitzaren arteko borrokan. Ezin dugu ukatu maila guztietan gautzen dela gatazka (lokalean, estatalean, eskualdekoan eta globalean), bai eta askotariko ikuspegi anitzetan ere; baina, lurraldeak garrantzi berezia du borroka politikorako, bi arazoirengatik.

Batetik, toki fisikoa ez ezik, subjektu politikoa ere bada lurraldea, non pertsonok, eragileek eta komunitateek elkarri eragiten diogun, lankidetzan jarduten dugun eta gatazkek sortzen ditugun. Funtsean, gure bizitzak garatzeko gunea da, gure beharrei erantzutekoa, gure itxaropenak ezartzeko, aldatzeko gure proposamen eta aukerak saiatzeko. Lurraldea, beraz, ezinbestekoa da (baina ez nahikoa), mundu globalizatu honetan etorkizun emantzipatzaile bat lortzeko.

Gainera, XXI. mendeko kapitalismoaren hainbat helburu ere tokiko eremuan kokatzen dira. Nabarmentzekoak dira,

besteak beste, esangura bereziko hiru: *hirigintza eta eraikuntza*, bai etxebizitzena zein bestelako eraikinena, bai merkataritzaren eta inbertsioen fluxua bermatzeko azpiegitura handiena; *nekazaritza eta elikadura*, giza bizitzari eusteko ardatza; eta, bereziki, *ondasun naturalak* (ura, lurra, energia, lur arraroak...), egungo borroka ekonomiko eta geopolitikoaren gakoetako bat. Horiek eta beste sektore batzuek (zerbitzuak eta erosketa publikoak, adibidez) salgai baliotsua bihurtzen dute lurraldea, bizitzarako —zentzu horretan, irabazi-iturri agorrezin hipotetikoa— nahiz metaketa kapitalistarako funtsezkoak diren eremuak biltzen dituen lehiagune bat, oinarri fisiko eta materiala murrizte-fase larrian dauden momentu honetan.

Beraz, desjabetzearen bidezko metaketa ahalbidetzeko tresna korporatiboak dira [megaproiektuak](#). Esparru komunitario, sozial edo publikoari lurraldea ebatsi eta kapital transnazionalaren eta merkatu globalen interesen zerbitzura jartzen dute behin betiko. Nekazaritzako monolaborantza industrialak, [basamortu berdeak](#), aire zabaleko meatzaritza, lursailak



akaparatzea, portuak, ubideak, frackinga, petrolio- eta gas-lizitazioak, kapitalismo berdea, banaketako eta logistikako azpiegiturak eta abar enpresa handien abangoardia dira, lurraldeak merkantilizatzeko bidean.

XXI. mendeko kapitalismo-proiektuaren eragin osoa hedatzen dute: gizartegiengoaren eta naturaren ongizatearen gaintik jartzen da kapital transnaziionala, demokrazia suntsitzen eta kontrol sozialerako eta indarkeriarako formula berriak entseatzeko bitartean.

Enpresa transnazionalak eta erakunde publikoak dira megaproiektu horien *protagonistak* —eta, beraz, erantzuleak—; hortaz, eraikuntzaz eta azken ezarpenaz arduratzen den korporazioa baino askoz harago doa kontua. Gauzak horrela, *megaproiektuaren kate globalaz* dihardugu, [finantzaketatik hasi](#) eta exekuziorako prozesu osoa hartzen duenaz. Korporazioak sozietate-hidra oso konplexuen bidez egituratu ohi dira; hainbat itxura juridiko eta izen izaten dituzte sozietateok, hala nola sukurtsal, azpikontrata, filial eta abar. Hidra horrek ezkutatu edo lausotu egiten du erabakiak benetan hartzen dituen zentro operatibo globalaren —exekuzio-herrialdetik kanpo egon ohi da— eta kate horretan parte hartzen duten entitateen jarraipena; hau da, ilundu egiten da horien partaidetza.

Era berean, hurrengo moduluan sagonago ikusiko dugunez, inbertsioaren jatorrizko nahiz helburuko enpresen tokiko erakunde publikoek prozesuan laguntzen diete horiei, dirulaguntzen, kredituen, aholkularitzaren, diplomaziaren eta abarren bidez (jatorrizkoen kasuan), eta ingurune lehiakorrek sortuz (helburukoen kasuan). Zehazki, estrategia hauek erabiltzen dituzte: lan-kontentzioa, segurtasun juridikoa, berrikuntza, eta, behar izanez gero, kontrol soziala,

errepresioa eta militarizazioa. Azken buruan, botere korporatiboaren gaitasun guzti-guztiak baliatzen dira.

Kate global horren indar pean, megaproiektuek *antzeko funtzionamenduereduak* erabiltzen dituzte, nahiz eta eurak askotarikoak izan. Nola edo hala tresna korporatibo horren identitatea bereizten duten hiru formula nabarmendu nahi ditugu bereziki.

Lehenik, ezarpenaren *sekretismoa eta opakutasuna*, megaproiektuaren azken partaideak eta erantzuleak zehazteari dagokionez eta komunitateei eta herritarrei informazioa emateari dagokionez. Hori dela eta, zaila da ezagutzea benetan nork hartzen duen parte megaproiektuaren kate globalaren sekuentzia osoan. Gardentasun-ezaren eraginez, gaitza da ekimen bakoitzaren benetako jabea eta kudeaketa efektiboa ezagutzea, eta, beraz, berorren inpaktuen aurrean erantzukizunak banatzea. Gainera, herritarrek jakin gabe ere jartzen dira abian proiektu horiek. Herritarrak emakida onetsi ostean edo obrako lanak abiatutakoan ohartzen dira, agian, fenomenoaz. Prozesu horretan, konplize izaten dituzte, botere korporatiboaren kontzeptu zabalean, erakundeak (alkatetzak, estatuko erakundeak, probintziak, departamentuak...).



Bigarrenik, enpresa handiek *estrategia-sorta zabala* baliatzen dute. Egitura ekonomiko, politiko, kultural eta juridiko ezberdinak erabiltzen dituzte, kasuaren arabera gizarte-legitimazioa bilatzeko, legezko edo legez kanpoko errepresioaren bidez. Horrela, transnazionalen gaineko diskurtso hegemonikoa balioztatu nahi da aurrena. Xede horrekin, lidergo sozial, politiko edo erlijiosoak kooptatzen dira behin eta berriz, eta mota guztietako laguntza-ekimenak sustatu (eskolak, azpiegitura txikiak, ikuskizunak...), gizarte-erantzukizun korporatiboan eta aliantza publiko-pribatuetan oinarrituz. Behar denean, komunitatea zatitzeko dinamika abiarazten da, aurrez dauden gatazkak (adibidez, identitate kultural eta erlijiosoak) nabarmenduz edo beste liskar batzuk sortuz, aniztasuna ezberdintasun bihurtzeko. Bazterketa eta erresistentzia tinko finkatzen direnean, errepresioari ekiten diote. Legearen bidea eta protestaren kriminalizazioa uztartzen ditu errepresioak, zigorgabetasun korporatiboaren arkitekturaz baliatuz. Eta, baldintza jakin batzuetan, zuzenean indarkeriara jotzen dute, harik eta, ikusi dugunez, berori egiturazko eta sistemiko bihurtzen den arte.

Hirugarrenik, estrategia korporatiboak *epe luzean duten proiektioarengatik* defi-

nitzen dira, espero diren itzulkinen eta egindako inbertsioaren arabera. Alegia, enpresa handiek formula anitzak eta osagarriak garatzen dituzte, eta, gainera, denbora luzez erabiltzen dituzte. Hartara, multinazionalen eta komunitateen arteko botere-asimetria itzelaz baliatzen dira, eta herritarren erresistentziak higitzearen alde egiten dute apustu, espero dutelako arian-arian akitu egingo direla. Bestalde, begirada luzez egiten diete aurre zorigaitz politiko edo juridikoei (esaterako, aurretiazko kontsulta egin ostean komunitatearen onespena lortu ez dutelako epailearen aginduz obrak geldiarazteari, LANEren 169. hitzarmenak megaproiektuak lurralde indigenetan ezartzeari buruz dioenari jarraikiz). Espero izaten dute beren presio nekaezinaren bidez indarrak, borondateak eta testuinguruak aldatzea etorkizunean.

Horrela, bada, multinazionalak sekretismoa, opakutasuna, aniztasun estrategikoa, legitimazioa, hertsadura, indarkeria, begirada luzea... erabiltzen dituzte, megaproiektuen bidez komunitatea desjabetzeko eta kontrol soziala lortzeko.

Merkatu globalerako irabazi ahalik eta handienak lortzeko helburu bakarrekin, *inpaktu oso kaltegarriak* eragiten dituzte [ekologian](#), gizartean, [lanean](#),

politikan, ekonomian, [giza eskubideetan](#), [desplazamenduetan](#), [indarkerian](#), osasunean, osasungarritasunean eta abar. Eta, behin eta berriz esaten ari garenez, eragin sistematikoak dira, ez aldizka-koak edo zirkunstantziak eragindakoak, hamarraldietan zehar dokumentatu izan denez.

## **b. Megaproiektuen analisi ekofeminista<sup>1</sup>**

Aurreko atalean egin dugun azterketa orokorragoaren ondoren, [megaproiektuen analisi ekofeminista](#) jorratuko dugu, fenomenoak ulertzeko formula moduan. Begirada horri esker, horien inpaktuak identifikatuko ditugu, eta generoaren arabera bereizi; baina, halaber, botere korporatiboaren agenda klasista, heteropatriarkal eta kolonialaren oinarrian dauden menderatze-jardunbideak bistaratuko ditugu.

Zehazki, ideia hau landuko dugu: enpresa transnazionalen jarduketek ordena patriarkal berri bat egituratzen dute lurraldeetan, eta horrek indartu eta eguneratu egiten ditu lehendik dauden botere-harremanak. Hots, megaproiektuek

oinarri patriarkalen araberrako birkonfigurazio sozio-territorial eta ekonomiko-politikoak eragiten dituzte.

Bost dimentsio azpimarratu nahi ditugu fenomeno hori aztertzeko (politikoa, ekonomikoa, ekologikoa, kulturala eta gorputzena), elkar gurutzatzen duten eta elkarri eragiten dioten esparrutzat hartu behar direnak.


### **a. Dimentsio politikoa, erabaki-espazio hierarkiko eta patriarkalak.**

Enpresa transnazionalak (gizonen jabetzakoak eta zuzendaritzapekoak gehienak) lurraldeetan sartzen direnean beren proiektuak inposatzeko, bertako eragile maskulino batzuekin solastatu ohi dira soilik. Hortaz, banakako negoziazio selektiboak gauzatzen dituzte, kargu publikoekin, gizarte-buruzagiekin, lurren jabeekin eta abar.


Ez da ausazko estrategia bat, ez horixe. Negoziazio kolektiborako gaitasuna ahultzea ahalbidetzen die horrek korporazioei, eta bezero-sareak eratzeko nahiz borondateak erosteko giro aproposa sortzea. Horrek esan nahi du emakumeak ahotsik gabeko, tutoretzapean mantendu beharreko

<sup>1</sup> Materialen atalean agertzen den García-Torres, "El IBEX-35 en guerra contra la vida" txosteneko edukiaren bertsio bat da atal hau.

**a.** Dimentsio politikoa, erabaki-espazio hierarkiko eta patriarkalak



**b.** Dimentsio ekonomikoa, lan-egitura patriarkalak



**c.** Dimentsio ekologikoa, bizitzaren ugaltze-zikloen haustura



**d.** Dimentsio kulturala, irudikapen eta estereotipo sexistetan sakontzea



**e.** Gorputzen dimentsioa, gorputzen jabetzea eta kontrola



eragile pasibotzat hartzen dituztela horien harreman-logikek.

Ondorioz, egitura politiko hierarkiko eta patriarkalak sustatzen dituzte megaproiektuek, eta aurrez dauden botere-dinamikekin egiten dute bat.

**b. Dimentsio ekonomikoa, lan-egitura patriarkalak.** Megaproiektuek aldatu egiten dituzte tokiko ekonomiak, eta beste noranzko bat ematen diete, multinazionalaren zentralitatearen arabera. Alde batetik, funtsezkoa bilakatzen da soldatak enpresa-ekimen berrian duen protagonismoa, horixe baita komunitatean bere jarduketa legitimatzeko pizgarri nagusia (nahiz eta, frogatuta dagoenez, enplegu-sorrera hori aldi batekoa izan, batez ere eraikuntzaren eta instalazioaren lehen faseetako). Beste aldetik, herritarrei ondasun natural eta erkide nagusien jabetza eta kontrola kenduz —pribatizazioa, akaparamendua, deforestazioa, kutsadura...—, handitu egiten da ordainsari korporatiboarekiko mendekotasuna.

Horrela, bada, gizonezkoen enpleguari lotutako merkatu-ekonomia hedatzen da, eta eraldaketa nabarmenak sortzen dira genero-harremanetan.

Handitu egiten da emakumeek gizonezkoen soldatekiko duten mendekotasuna, eta autonomia galtzen dute beren bizitzetan.

**c. Dimentsio ekologikoa, bizitzaren ugaltze-zikloen haustura.** Gero eta zailagoa da ondasun naturalak eskuratzzea, eta, megaproiektuen ondorioz, elikadura-subiranotasuna galdu da. Horrenbestez, emakumeen lan karga handitu egin da, familiako eta komunitateko bizitzan eragile nagusiak diren aldetik. Are gehiago, esan dugunez, gizonezkoek bertan behera uzten dituztelako tokiko ekonomiaren zerbait zeregin, enplegu korporatiboan jarduteko. Horrela, finkatu egiten da lanaren sexuaren araberako banaketa eta logika erreakzionario eta asimetrikoagoetan oinarritutako zereginen eta erantzukizunen banaketa.

**d. Dimentsio kulturala, irudikapen eta estereotipo sexistetan sakontzea.** Lurraldearen maskulinizazioak —gizonezko gehiago erakartzen ditu enplegu-mota horrek— eta militarizazioak —jabetza pribatua babestea eta herri-erresistentziaren errepresioa— inpaktuak ditu generoan; besteak beste, emakumeek eta neskatok segurtasun falta eta beldurra bizi

dituzte megaproiektuen ondoriozko lan- eta aisia-dinamika berrien aurrean. Gainera, maskulinitate hegemonikoak inposatutako arauak urratzen dituztenek estereotipo moral patriarkaletan funtsatutako estigmak jasotzen dituzte ordainetan.


**e. Gorputzen dimentsioa, gorputzen jabetzea eta kontrola.** Ingurua maskulinizatu eta militarizatzen denean, emakumeen gorputzez jabetzeko joera indartsua nabarmentzen da, eta gizonen esplotazio eta kontsumorako gai bihurtzen dira emakumeak, bai eta gudu-zelai ere. Emakumeen gorputzarekiko indarkeria eta kontrol soziala imajinario patriarkaletan txertatuta daude, eta areagotu egiten dira enpresa transnazionalak agertzen direnean.

Azken finean, aurrez dauden egitura patriarkalez baliatzen dira megaproiektuak, eta, aldi berean, sakondu egiten dituzte. Kapitala metatzeko prozesuak, desjabetzeko modu neokolonialak eta patriarkatuaren berregituraketa, hortaz, estuki lotuta daude.

### **c. Megaproiektuei aurre egiteko gakoetako batzuk**

Historian zehar, megaproiektuei aurre egin dieten herritar-mugimenduen adibide ugari daude. Hainbat testuinguru eta egoeratan halako ekimenak gerarazteko balio izan duten [10 gako sistematizatu](#) ditugu Latinoamerikako Multinazionalen Behatokian (OMALen). Izan ere, baliagarriak izan daitezke beste prozesu sozial batzuetan oinarritzko agenda taxutzeko, betiere egoera zehatz bakoitzera egokituta.

Bi kategoria osagarritan sailkatu ditugu gakoak: batetik, agendan eta, bestetik, estrategian. Megaproiektuarekiko erresistentziari eusteko diskurtsotzat jotzen dugu *agenda*. Honek, egoeraren diagnostikoaz gain —testuinguruaren erradiografia, eragileen mapa eta inpaktu eta erantzuleen aipamena—, herri-sektoreek ekimen korporatiboarekiko zidor alternatibotzat proposatzen duten diskurtsoa ere hartzen du barne. *Estrategia*, berriz, gizarte-mugimenduak bere agendan aurrera egiteko sustatzen dituen gertaera, prozesu eta ekintzen sekuentzia da, gure ustez. Hain zuzen, erresistentzia praktikan eta denboran garatzea.



Horrela, bada, agenda (*zer*) eta estrategia (*nola eta nork*) bereizten ditugu, baterako logika batean bi kategoriok duten garrantzia nabarmentzeko; diskurtsoa eta praktika, etorkizuna eta oraina, proposamena eta subjektua uztartzen ditu baterako logika horrek. Beraz, ezin ditugu bakoitza bere aldetik aztertu. Ezta bata bestearen mende jarri ere. Modu horretara, ez dago zutabe teoriko-politiko-kultural-komunikatibo jakin batzuetan euskarrituko ez den estrategiarik. Ezta, kontrako zentzuan, aurrera egiteko prozesu, eragile eta ekimen ugari behar ez dituen agendarik ere.

Premisa horretatik abiatu, lehenetsitako gako politikoak azalduko ditugu jarraian. *Agendari* dagokionez, gako hauek nabarmenduko ditugu:

**1. *Egunerokotik abiatzea.*** Komunitatean errotutako agendek, megaproiektua herritar gehienek egune-

rokotasunarekin lotzen dituztenek, oinarri irmoagoak dituzte. Hori dela eta, zehaztasunari lotu beharko litzaioke proposamen politikoak; lurraldean, biztanleen gorputz zaurgarrietan, izango dituen inpaktuei; komunitatea osatzen duten bizitzen oinarri material eta kulturalarekiko eraginari. Koherentziaz, soila izan beharko litzateke agendaren diskurtsoa, ulergarria eta pedagogikoa, eta bere egin beharko luke lurraldearen ikuspegitik tokikoaz harago doazen fenomenoak azaltzeko erronka.

**2. *Logika positiboazko kontakizun propioa finkatzea.*** Erabiliko den diskurtsoak herritarren legitimitatea lortzeko aukera gehiago izango ditu, baldin eta, egunerokotik abiatzeaz gain, positiboan —ordezko proposamena emanaz— eraikitzen bada, negatibora —megaproiektua suntsitzera— mugaratu beharrean. Horrenbestez, garran-

tzitsua da aurrera egiteko ibilbidea finkatzea, etorkizun emantzipatzaile eta bideragarria taxutzea, korporazioen nonahikotasunari eta beste aukerarik ez dagoela dioten horien logikari aurre egiteko.

**3. Proposamen interseksional bat aurkeztea.** Begiraden eta ikuspegien interseksionalitateak sortutako agendek aberastu egiten dute herri-proposamenaren edukia, eta honen sustapen-oinarriak handitzea ahalbidetzen dute. Alde horretatik, bai egoeraren eta megaproiektuaren balizko inpaktuen diagnostikoa eta bai horren ordezko diskurtsoa erreferentzia-esparru inklusiboetatik abiatu beharko lirake, aniztasunean batasuna lortzeko, subjektuen eta sektoreen arteko asimetriak azalaratzeari uko egin gabe.

**4. Alternatiba erradikal bat defendatu.** Eraso merkantilizatzailearen oldarkortasunak egingarria denaren esparru estutik irteteko erronka onartzera garamatza, merkatuen eta enpresa handien oinarriak kolokan jarriko dituzten agenda erradikalak erabiliz. Kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka gordindu egiten bada, bizitzaren aldeko apustuak irmoa izan behar du,

gaur egun indarrean dauden balore, egitura eta dinamikekiko antagonikoa den zerumuga batean oinarritutako etorkizuna irudikatuz.

*Estrategiari dagokionez, gako hauek lehenesten ditugu:*

**5. Demokrazia zuzena eta parte-hartzailea bultzatu.** Demokraziari balio handia emango dion estrategia bat finkatzea da herri-mugimenduan errotutako agenda bat jorratzeko berme bakarra, babes-oinarriari eutsi eta berori handitzeko eta politikoki naiz mediatikoki eragiteko modu bakarra. Hortaz, parte-hartze aktibo, askotariko eta kalitatezkoak funtsezkoa izan beharko luke borroka-prozesuan, bai eta informazio eta komunikazio garden eta etengabeak ere. Bestalde, megaproiektuari buruzko kontsultak, kabildoak, erreferendumak eta abar —ahal dela erakundeen laguntzarekin eta babesarekin, baina baita halakorik ez badago ere— mugarri estrategikoak dira, komunitatea kohesionatu eta aktibatzeke, eta erresistentzia-estrategiaren indarra handitzeko.

**6. Sektore anitzeko erresistentzia-prozesua garatzea.** Herritarren eta komunitatearen mugimendua indartu

egiten da gatazka politikoari osotasunean aurre egingo dion borroka-prozesu integral bat proposatzen duenean. Bizitzaren aniztasuna, ekodependentzia eta interdependentzia babestekotan; gizarte-antolamenduaren espektro osoa hartzen duen botere korporatiboari aurre egitekotan, eta jarduketa-patroi oso zabalak dituzten enpresa boteretsuen erasoari eustekotan, sektore anitzeko erantzun biribila behar da. Beraz, hauek dira, besteak beste, ahal dela erresistentzia-prozesu artikulatuetan erabili beharko genituzkeen ildoak: baterako diskurtso bat eraikitzea, informazio argi eta gardena, komunikazioa, gizartea mobilizatzea, intzidentzia, estatuko eta nazioarteko itunak, erakunde-presioa eta bide juridikoa.

**7. Epe luzerako borrokarako baldintzak bermatzea.** Gatazka luzatzen bada —batez ere botereari dagokionez oso asimetrikoa bada—, etengabe aztertu beharko litzateke helburuen eta gaitasunen arteko oreka. Azken helburua izango litzateke gatazkan modu baketsuan eragiteko moduko estrategia bat erabiltzea, herri-agendaren eremua eta babes-oinarria zabaltzeko. Horrez gainera, herri-estrategiak aurrera egin dezan, aurea hartu

behar zaie (lehenago ere esan dugunez) begirada luzea, onarpenaren bilaketa, protestaren kriminalizazioa eta are zuzeneko indarkeria ere uztartzen dituzten eredu korporatiboak. Ondorioz, funtsezkoa da gaitasun proaktiboa izatea, prozesuak aurreko puntuan azaldu dugun sektore anitzeko logikan aktibatzeke eta, ahal den neurrian, gatazkari iraunarazteko baldintzarik onenak bermatzeko (erresistentzia-kutxak, estaldura juridikoa, barne-kohesiorako espazio demokratikoak, aliantza-sare handia eta abar).

**8. Hitzarmen-logikak hausturan eta desobedientzian oinarritutako jardunbideekin uztartzea.** Agenda erradikalak, ahal denaren esparrua zabalduko dutenak, oso lotuta daude eragin-eremua handituko duten eta hausturan eta desobedientzian oinarrituta dauden estrategiekin. Beraz, megaproiektuarekiko erresistentzian mesedegarriak izan daitezke mobilizazio handiak, legez kontrakoak zein ilegítimoak diren obrak eragotziko dituzten geraldak baketsu eta etengabeak, espazio publiko eta korporatiboak hartzea, kontsulta komunitario edo sozialak egitea eta abar, baldin eta ausardiaz egiten badira elkarriz-



ketako eta adostasunerako beste ekimen batzuekin batera.

**9. Askotariko eragileak biltzea.** Enpresa boteretsu eta opakuen aurkako borrokaren hedadura eta intentsitatea nolakoak diren, ezinbestekoa izango da, askotariko herri-mugimenduak biltzea ez ezik, beste eragile batzuk ere batzea, nork bere identitatetik baterako agendari eta estrategiari ekarpena egin diezaioten. Nabarmen-garria da, ildo horretan, eragile hauek duten parte-hartze estrategikoa: mundu akademikoak edo gizarte-ikerketarenak —herri-kontakizuna sendotuz eta enpresarenari aurre eginez—, komunikabideek —foku mediatikoa handituz—, kargu publikoek —erakunde-estrategia osatuz— eta juristek —eztabaidarako eta komunitatea babesteko legezko bideak garatzeko—.

**10. Aliantza- eta eragin-logika hedatzea zentzu lokal-globalean.** Gizarte-intzidentziak eta -erantzunak bere oihartzun- zein erresistentzia-eremuak biderkatzen ditu, baldin eta, megaproiektua ezarrita dagoen lekura mugatu beharrea, haren hidra korporatiboa osatzen duten lurraldeetan ere gauzatzen bada. Zentzu horretan, enpresek egoitzak dituzten

lurraldeetako (enpresen finantzaketatik ezarpena arte parte hartzen dutenetako) eragile sozial, politiko eta mediatikoekin aliantzak eginez, sendotu egiten dira erantzuna, agenda eta estrategia, bai eta arrakala korporatiboak handitu ere.

Horiek dira, besteak beste, megaproiektu korporatiboekiko gatazka asimetrikoari baldintza hobeetan aurre egiten lagunduko diguten gakoak.

#### ***d. Kapitala gure bizitzen aurka: ofentsiba korporatiboaren hainbat agerpen***

Gida honen hasieran baieztatu dugunez, megaproiektuak ez dira arlo ekonomiko, politiko, juridiko eta kulturalera hedatzen den agenda integral baten tresna bakarrak.

Hori dela eta, erreparatu egin behar diegu gure bizitzetan eragin nabarmena duten jardunbide korporatiboaren beste agerpen batzuei ere. Horrela, bada, [erauzketa](#) korporatiboaren kontzeptuari adiera zabalagoa eman nahi diogu; izan ere, hustea eta desjabetzea uztartu egiten du esplotazioarekin, menderatze

anizkoitzarekin eta sistematik gero eta sektore gehiago kanporatzearekin.

Kontzeptu horretatik abiatu eta lehen modulan azaldu dugun esparru orokorraren barruan —kapitalaren zentralizazioa eta kontzentrazioa, merkantilizazioa, gutxieneko demokratikoen suntsipena eta neofaxismoa—, agenda korporatiborako esangura berezia duten zenbait tresna eta arlo nabarmenduko ditugu azken atal honetan.

Jarraian, batzuk lehenetsi eta aztertuko ditugu, azaletik bada ere:

a. Ingurumena. Megaproiektuek lurraldeetan eta ondasun naturaletan dituzten inpaktu sistematikoez gain, botere korporatiboak erantzukizun ukaezina du klima-aldaketaren aurrerapenean. Hain zuzen ere, 1988tik hona soilik 100 enpresek [berotegi-efektuko gasen % 70](#) sortu dute, bereziki energia fosilean, erai-kuntzan, garraioan eta nekazaritzako industrian. Aldi berean, planeta osoko hegazkineria zibil guztiak adina isurtze eragiten ditu, dagoeneko, ustez materiala ez den [Internet sareak](#).

Gainera, funtsezko eginkizuna du [bio-dibertsitatearen galeran](#) eta materialak

eta energia (berriztagarria eta ez-berriztagarria, kapitalismo berdearen logikan) neurri gabe kontsumitzeko ohiturari eusten. Alde horretatik, enpresa handiek sustatzen eta babesten dituzten merkataritza- eta inbertsio-tratatuen ondorioz, ezinezkoa da egun bizi dugun klima-larrialdiari aurre egiteko moduko politikarik lantzea; izan ere, inbertsioen segurtasun juridikoa lehenesten dute beste



ezeren gainera, [EBren eta Mercosuren arteko hitzarmenak](#) argi uzten duenez.

Hortaz, enpresen jarduna apaintzen ohi duen diskurtso berdea gorabehera, dinamika jasanezinean murgilduta daude, eta beharrezkoa da hori errotik aldatzea.

**b. [Lana](#).** Soldatapeko enpleguari gainbalioa ateratzea, batetik, eta zaintza-lanak (gehienetan emakumeek eginak) menderatzea eta ikusezin bihurtzea, bestetik, horietan dira kapitalismoaren etorkizunerako oinarriak. Gaur egun, lanaren aurkako eraso hori bikoiztu egin da, sistemak bizi duen momentu kritikoa dela eta.

Lehenik eta behin, multinazionalak babesten duten agendaren ondorioz, *enpleguen kopuru garbia murriztu egingo da*, digitalizazioaren eta automatizazioaren aldeko apustuagatik. Murrizketa hori % 10ekoa, % 47koa edo % 90ekoa izan, hainbat azterlanen arabera are gehiago narriatuko da enplegu osoaren kimera, eta kolokan jarriko da sistemaren legitimitatearen oinarrian dagoen [soldataren diktadura](#).

Bigarrenik, enpresa handiek *enpleguaren prekarizazioa bilatzen dute, ikuspegi antisindikal nabarmenean* funtsatuz. «Plataformen kapitalismoak» mesede egin dio dinamika horri, zeren eta *gyg economy*arentzako eremuak ireki baititu, erantzukizun korporatiboa ia erabat suntsitzen duten lan-harremetan euskarrituta. Horrenbestez, elkarlaneko lan duin, ondo ordaindu eta iraunkorrak sortzea bada ere diskurtsoa, *lanaren uberizazio* orokorra nabarmena da arlo ekonomiko guztietan; izan ere, lan errepikakor, monotono, txarto ordaindu eta ordutegi finkorik gabeak garatu dira, [genero-ukitu](#) argiarekin. Merkataritzako eta inbertsioko tratatuek indartu egiten dute dinamika hori, legeak beherantz harmonizatu eta inbertsioen segurtasun juridikoa bermatzeko logikarekin bat.

Hirugarrenik, botere korporatiboak arian-arian suntsitu egiten dituzten bai enplegua eta bai politika publikoak (enpresaren eta ongizate orokorraren arteko bitartekariak), etika eta jardunbide erreakzionario, patriarkal eta familistak sustatzen ditu [zaintza-lanetan](#). Ondorioz, areagotu egiten da lanaren sexu-bereizketa, eta, funtsean, emakumeen bizkar uzten da bizitzari eustearen ardura, nahiz eta ugariak

izan feminismo liberalez blai dauden diskurtso bioleta eta aurrerakoiak.

c. *Datuak eta adimen artifiziala*. Digitalizazioa eta automatizazioa dira, zalan-tzarik gabe, etorkizuneko ekonomia-ren zutabeak. Olatu luze hedakor bat abiatzeko gaitasunik erakutsi ez badu ere, badirudi hobeto egokitzen zaiola aurrean ditugun orotariko gatazken aurrean diskurtso berriak eta kontrol sozial handiagoa behar dituen kapitalismoari. Halere, kapitalismo digital horren aurrerapenak ondorio nabarmenak ditu gehiengo sozialengan.

Lehen moduluan aipatu genituen batzuk: merkantilizazioa gure egunerokotasunaren hainbat arlotan sartzeko gaitasuna; kapitala zentralizatzeko eta kontzentratzeko joera, txapeldun korporatiboak (hau da, sektoreko enpresa bakarrak) ezartzeraino; lanaren prekarizazioa (zentzu zabalean), eta energian eta materialetan duen gastua.

Dena den, funtsezkoa da ulertzea AEBko eta Txinako enpresa gutxi batzuk direla lehengai nagusiaren (*datuen*) jabe bakarrak. Horiek erauzi, sistematizatu eta zerbitzu eta informazio bihurtzen dituzte pribatutasun osoz, eta, horrela, parerik ez duen bo-

terea ematen diete *big tech* enpresei. Agerikoa da zer-nolako indarra duen horrek merkantilizazio korporatiboaren logikan eta korporazioak zenbait sektoretan (osasunean, hezkuntzan eta nekazaritzan) sartzeko dinamikan.

Bestalde, ia guztiok sortzen ditugunez datuak hainbat gailu erabiliz, enpresa horiek informazio pertsonal mordoa pilatzen dute. Hori estrategikoa da bai merkataritza-helburuetarako, bai zaintza soziala sendotzeko eta bai [prozesu demokratikoak hondatzeko](#), *fake new* pertsonalizatuen eta beste formula batzuen bidez —eta horri merkataritzako eta inbertsioko tratatuen eragina gehitzen zaio, bai eta horien konstituzio korporatibo globalaren aldeko apustua ere—.

Horiek horrela, elkarlaneko ekonomia desmaterializatu eta horizontala-ren mitoaren atzean ezkututzen da egungo eta etorkizuneko ezta detara ondoen egokitutako XXI. mendeko kapitalismorik arriskutsuena.

d. *Finantzak*. Aurreko mendeko 70eko hamarkadaz geroztik, botere korporatiboa arduratzen da ekonomiaren finantzarizazioaz, «ekonomia erreal» deritzon ez baitu aurkitzen an-

tzeko irabazi-tasarik. Horrek ezegonkortasuna, zaugarritasuna eta epe laburreko bizitza ematen dizkio, gaur egun, XXI. mendeko kapitalismoari. Gainera, zor-arazo itzela sortu du, ez publikoa soilik, baita korporatiboa ere; [2020an BPGd-aren % 322ra](#) iritsi da. Horren eraginez, [enpresa zombi](#) asko (beren zorraren zerbitzua ordaintzera mugatzen direnak) ezin sentiberagoak dira interes-tasetako aldaketen aurrean, eta finantzaketa publiko gero eta gehiago behar dute.

Finantzarizazioa, bestalde, herritar-sektoreetara ere iristen den fenomeno da, oinarrizko gaietan — etxebizitza, elikadura... — kontsumoa bermatzeko formula.

Horrela, bada, balioa erauzteko tresna ere bada, lanaren prekarizazioa baino harago doana, eta herritarren autonomia mugatu egiten du, kreditu bidez ustezko inklusio-imaginario bat eskaintzen duen [sistema baten mende](#) jarritz.

e. *Imaginario kulturala*. Erauzketa-formula guztiak (hustea, desjabetzea, esplotazioa, menderakuntza, kanporatzea...) *kolore neoliberalerako agenda* baten pean ezkututzen dira. Horien diskurtsoaren arabera, zenbait esku-

bide eta proposamen aurrerakoiren — berdea, [lila](#), ostadar-kolorea... — alde egiten dute enpresa transnasionalek.

Horien asmoa da beren jardunbideak etorkizun positibo eta desiragarriekin lotzea; beren esku-hartzeen izaera eta inpaktuak ezkutatzea; sen on berrietara egokitzen saiatzea, parametro zibilizatzaile hegemonikoak aldatu gabe, eta korporazioen irudi positiboa aldarrikatzea, indarreko ereduaren protagonista moduan inork zalantzan jar ez ditzan.

Horren harira, kultura-eraso ugari garatu dituzte, publizitate-kanpainak eta gizarte-erantzukizun korporatiboko estrategiak erabiliz, beren borondatez eta edonolako arautze publikotik kanpo, jakina.

Azken buruan, enpresa transnasionalek tresna-multzo handia jorratzen dute, beren agenda integralaren ildotik. Horien aurrerapenak gizateria eta planeta birprozesatu beharra ekarriko du, eta, beraz, behar-beharrezkoa da horien aurrerapausoei eustea eta etorkizun politikoan horiek suntsitzeko urratsak ematea.

### 3. EZTABAIDAREN ARDATZAK

1. Nola bistara dezakegu megaproiektuen kate globala?
2. Zein dira megaproiektuei aurre egiteko funtsezko gakoak?
3. Zer ekarpen egiten du ikuspegi ekofeministak megaproiektuen gainean?
4. Gaur egun, zein dira tresnarik eta inpakturik arriskutsuenak bizitzaren ugalketa zabalduari begira?

## 4. MATERIALAK

### Artikuluak eta argitalpenak:

Hernández y Martí (2021): ¿Cómo enfrentar la crisis desde los movimientos sociales en tiempos de pandemia? <https://omal.info/IMG/pdf/podercorpre-sistweb04enfrentarcrisis.pdf>

Fernandes (2020). Entre apps y bots. ¿Qué está en juego para las mujeres trabajadoras en la economía digital? [https://www.sof.org.br/wp-content/uploads/2020/08/Cr%C3%ADtica-feminista-ao-poder-corporativo\\_ES-Pronto.pdf](https://www.sof.org.br/wp-content/uploads/2020/08/Cr%C3%ADtica-feminista-ao-poder-corporativo_ES-Pronto.pdf)

Fernández (2019). El poder corporativo al asalto de los territorios. Claves para la resistencia popular a los megaproyectos. <http://omal.info/spip.php?article9061>

Gago, Mezzadra (2015). Para una crítica de las operaciones extractivas del capital Patrón de acumulación y luchas sociales en el tiempo de la financiarización. <http://economainternacional.sociales.uba.ar/wp-content/uploads/sites/84/2018/08/Gago-y-Mezzadra-2015.pdf>

García-Torres (2018). El Ibex 35 en guerra contra la vida. [https://omal.info/IMG/pdf/2018\\_el\\_ibex\\_35\\_en\\_guerra\\_contra\\_la\\_vida.pdf](https://omal.info/IMG/pdf/2018_el_ibex_35_en_guerra_contra_la_vida.pdf)

González, Casado, Fernández (2020). Fondos públicos, negocios privados. <http://omal.info/spip.php?article9110>

Moreno (2020). Trampas del poder corporativo: maquillaje violeta y mercantilización de las luchas. [https://www.sof.org.br/wp-content/uploads/2020/08/Cr%C3%ADtica-feminista-ao-poder-corporativo\\_ES-Pronto.pdf](https://www.sof.org.br/wp-content/uploads/2020/08/Cr%C3%ADtica-feminista-ao-poder-corporativo_ES-Pronto.pdf)

### Bideoak:

PBI (2021): Jornadas “Empresas y derechos humanos: afectaciones en América Latina”. <https://youtu.be/Op-BWtMzD8>



Omal (2019). El asesinato de activistas medioambientales. TVE. <http://omal.info/spip.php?article8863>





